

Udal talde politikoaren iritzia



AURRERA EMAKUME LIDERAK!

2023ko martxoaren 8an, berriz ere aldarrikatu nahi dugu emakume gehiago behar direla erabakiak hartzeko eta eragiteko lanpostuetan. EMAKUMEAK GORA! Hori da, hain zuzen ere, Emakunde M8ren harira eta aldarrikapen-ekintza gisa abian jarri duen kanpaina.

Izan ere, hainbat aurrerapen egin badira ere, oraindik ez dago ez genero-berdintasunik, ez parekotasunik: gaur egun oztopo ugari daude esparru askotan, baita emakumeen lidergo-lanpostuetan ere.

Euskadin emakume gehiago behar dira erabakiak hartzeko eta eragiteko lanpostuetan, eremu publikoan zein pribatuan. Emakunderen kanpainaren bidez haxe nabarmendu da: Euskadin goi-mailako ikasketak dituztenen % 60 emakumeak badira ere, gerentzia edo lidergoko lanpostuen % 6 soilik betetzen dituzte emakumeek.

Argi dago kasu horretan, lanbide-aurkeraketan eta lan-esparruari lotutako



beste hainbat egoeratan bezala, oraindik ere benetako parekotasunean eragina duten estereotipo eta aurreiritzi matxistengatik baldintzatuta daudela.

"Aurtengo martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, lehentasunezkoa da emakumeen lidergoa bultzatzea gobernantza feminista

eta partekatutako lidergoa oinarritzat dituen eredutik abiatuta. Politikan eta erabakiak hartzeko esparru guztietan emakumeek maila berean parte hartzea eta lidergoa izatea funtsezkoa da 2030ean Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko", adierazi du EUDELEK 2023ko martxoaren 8aren harira egindako adierazpenean.

Eta hala da, pertsona eta gizarte ororen garapena eskubide-berdintasunean eta askatasunean oinarritu behar delako; horrexegatik, Eusko Alderdi Jeltzaleak hainbat urte daromatza lanean bere konpromisoetan parekotasunari lotutako estandarrak betetzeko. Horren erakusgarri da EAJ-PNVren organo betearazleetan emakumeen presentzia parekidea dagoela, udal-erakundeetatik abiatuta. Parekotasun eta konpromiso horiek hurrengo hauteskundeetan ere islatuko dira, Amaia Agirre izango baita Getxoko Udalerrako hautagaia, eta Elixabete Etxanobe Bizkaiko ahaldu nagusikoa. EMAKUMEAK GORA!



AITA TRINITARIOEN AURKAKO BIDE GABEKERIA



Adierazi nahi dugu oso kezkatuta gaudela gobernu-taldeak Aita Trinitarioen aurka egindako bidegabekeriagatik. EAJ herritarren atzetik dabil HAPO berriaren Algortako goiko alderako aurreikusita duen hirigintzako esku-hartzearekin. Lursailak kendu nahi dizkiete, gune horretan ekipamendu kulturala eraikitzeko, nahiz eta Antzokia oraindik handi geratu eta

betetzeko gai ez izan. Horrez gain, Argia Fundazioari lorategia kendu nahi diote eta etxe batean giltzaperratu nahi dituzte. Beren aitzakia aparkalekua sortzea da, baina gogorazi behar dugu bien bitartean Antzokian oraindik daudela erabili gabeko 90 partzela. Utz ditzagun Aita Trinitarioak lasai beren egunerokotasunarekin jarraitu dezaten. #esnatuGetxo



ZAINDU DEZAGUN MAITE DUGUN HORI

Amorrua, pena eta haserrea sentitzen dugu Erromoko Lope de Vegako eraikinen eraisketagatik. Identifikatuak, atxilotuak, kolpatuak... Lotsagarria da azken asteetan gure herrian gertatu dena. Zorritzarrez, Erromokoa ez da salbuespena Getxon, HAPO berriak bide berbera jarraitzen duelako: inposaketa, eraikuntza masiboa, berdeguneen txikizioa, lo egiteko herriaren eredia... Eta espekulazioa sustatzearekin batera, hainbat eraikin historiko botatzea aurreikusten dute, nahiz eta bertan bizi direnak kontra egon, nahiz eta ondare aldetik balio handikoak izan. Erakundeetan zein kalean, beharrezkoa da presioa egiten jarraitzea. Horregatik, EH Bilduk ere dei egiten du martxoaren 25eko manifestazioan parte hartzera, 17:30ean Telletxetik. Maite duguna zaindu behar dugulako!



M8: GETXOKO EMAKUMEEN ETXEA (GUZTIONA) ATERAKO DUGU KALERA

Emakumeen Nazioarteko Eguna den martxoaren 8a dela-eta, PSE-EEK kudeatzen duen Berdintasun Zerbitzuetik nabarmendu nahi dugu oso garrantzitsua dela urte askotan **esparru pribatura lotuta egon diren emakumeek espazio publikoa okupatzea**. Horretarako, kanpaina interaktibo bat abiatu dugu, **Getxoko Emakumeen Etxea (guztiona) kalera ateratzeko**, getxoztarrek jakin dezaten **nolakoa izango den eta izango dituen espazioak**; espazio horiek lankidetzaren prozesu baten bidez zehaztu dira, zeinetan 50 emakume getxoztarrek parte

hartu baitute. Gune honen berri eman nahi dugu biniloen eta QR kodeen bidez, proiektu honen eraikuntza-prozesuari buruzko informazio guztia biltzen baitute. Proiektu hau **mugarri historikoa izango da Getxoko berdintasun-alorrean**, eta aurrerapauso izango da emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean. Izan ere, **Getxo udalerrin feminista da**, eta Getxoren etorkizuneko gizarteak ulertzeko modu bakarra feminismotik eta **berdintasunean diharduten emakumeen parte-hartzetik** abiatuta da.



EGUNERO DA MARTXOAREN 8A

Aurtengo martxoaren 8an, kolektiboak, herritarrak eta erakundeak mobilizatuko dira Emakumeen Nazioarteko Egunean harira. Borroka feminista egoera zaurgarrian dago, lortutako eskubideetan atzera egitea nahi duten hitzaldi eta mugimendu totalitario nahiz misoginoen pean. 2023an, bederatzi erailketa matxista egon dira dagoeneko:

bederatzi emakume erail dituzte emakume izate hutsagatik. Aurreko astean, Getxon, aurtengo laugarren eraso matxista jasan genuen. Noiz arte onartuko dugu gure bizitzetako horrelako erasoak egitea? Politika publikoak eta borroka feminista entzuteko espazioak etengabe landu behar dira. Lortu dezagun egunero martxoaren 8a izatea.